Estas son las cinco unidades designadas bilingües al inicio del V periodo de planificación:

- Sección de Atención Ciudadana
- Ventanilla única, del Servicio de Relación con los Contribuyentes
- Secretaría Técnica de Función Pública
- Servicio de Igualdad, Cooperación e Interculturalidad
- Museo Bibat, del Servicio de Museos y Arqueología

El objetivo establecido para las unidades bilingües es, además de garantizar el servicio bilingüe a la ciudadanía tanto oralmente como por escrito, avanzar para que también el euskera sea lengua de trabajo.

## 7.2 Erabilera mikroplanak

Administrazio unitate batek elebidun izateko baldintzak betetzen ez baditu, erabilera mikroplanak baliatuko dira. Horien bitartez ahalegina egingo da elebitasuna bermatzeko eta euskararen eguneroko erabileran aurrerapenak egiteko.

### 7.3 Lehentasunak: unitateak eta lanpostuak

#### 7.3.1 Unitateak

Ondoren, lehenetsitako administrazio unitateen sailkapena ematen da, norabidea erakutsiko duena plan operatiboetako neurriak aurrera eramateko. Sailkapena egiteko bi irizpide hartu dira kontuan: unitateen izaera eta horietan gutxieneko euskara maila duten langileen kopurua. Hauxe da sailkapena, lehentasun mailaren arabera (lehentasuna=L):

- Atal elebidunak: L1

Lehen mailako lehentasuna izango dute atal elebidunek.

- Jendaurreko administrazio unitateak: L2

Bigarren mailako lehentasuna izango dute lanpostuaren hizkuntza eskakizuna egiaztatuta duten langileen kopurua %50ekoa edo altuagoa duten jendaurreko administrazio unitateak.

- Gizarte izaerako administrazio unitateak: L3

Hirugarren mailako lehentasuna izango dute lanpostuaren hizkuntza eskakizuna egiaztatuta duten langileen kopurua %50ekoa edo altuagoa duten gizarte izaerako administrazio unitateak.

- Izaera orokorreko administrazio unitateak: L4

Laugarren mailako lehentasuna izango dute lanpostuaren hizkuntza eskakizuna egiaztatuta duten langileen kopurua %60koa edo altuagoa duten izaera orokorreko administrazio unitateak.

- Izaera bereziko administrazio unitateak: L5

Lehentasunik txikiena izango dute izaera bereziko administrazio unitateak.

#### 7.3.2 Lanpostuak

Unitateen izaeren arabera lehentasunak finkatzeaz gain, V. plangintzaldiaren hasieran AFAko lanpostuen izaerak aztertu dira, batez ere jendaurrekoak identifikatzeko. Izan ere, edozein dela langileen hizkuntza maila, lanpostu horiek estrategikoak dira herritarren hizkuntza aukera bermatzeko. Beraz, plangintzaldian zehar, lanpostua kokatuta dagoen unitatearen izaera gorabehera, jendaurreko lanpostuek lehentasuna izango dute –diharduten langileen eta unitateen beharrak aintzat hartuta– erabilera mikroplanak antolatzekeo lanpostuaren hizkuntza eskakizuna egiaztatuta dutenen kasuan, eta bestelako jarduerak hizkuntza eskakizuna lortuta ez dutenentzat. Aldundiko lanpostuen heren bat inguru jendaurrekoa da.

## 8. HIZKUNTZA OFIZIALAK ERABILTZEKO IRIZPIDEAK

86/1997 Dekretuak dio erabilera planetan azalduko dela hizkuntza ofizialak nola tratatu behar diren administrazioeko esparruetan. Irizpideak ezinbestekoak dira planaren urratsak egiteko eta helburuak lortzeko. Beharrezkoa da langile eta unitate guztiek jakitea zer egin euskaraz, nola, noiz, norekin.

Ondoren azaltzen diren irizpideen aplikazioan, 10/1998 Euskararen Foru Arauak ezartzen duen eta Arabako Foru Aldundian indarrean dagoen Erakunde Nortasunaren Eskuliburuak zehazten duen moduan, bi hizkuntza ofizialak erabiltzerakoan euskarari emango zaio lehentasuna.

Besteak beste, ondoko esparruetan ezarriko dira hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak; horiek betetzeko ardura gaia dagokion sailarena eta unitatearena da.

### 8.1 ARABAKO FORU ALDUNDIAREN HARREMAN KOMUNITATIBOAK

Arabako Foru Aldundiak, bere eginkizunak betetzean, hiru harreman mota ditu: herritarrekin eta zerbitzugintzako eragileekin (enpresak, elkarteak, lanbide elkargoak...), beste administrazioekin eta Aldundiaren barruan. Hiru harreman mota horiek bai ahoz bai idatziz gauzatzen dira.

## 7.2 Microplanas de uso

Cuando una unidad no cumpla los requisitos necesarios para ser designada unidad bilingüe, se utilizarán los microplanas de uso. A través de ellos se trabajará en la vía de garantizar el bilingüismo y avanzar en el uso cotidiano del euskera.

### 7.3 Prioridades: unidades y puestos

#### 7.3.1 Unidades

A continuación se muestra la clasificación de las unidades administrativas prioritarias, que señalará la vía a seguir a la hora de llevar a cabo las medidas de los planes operativos. Se han seguido dos criterios para realizar la clasificación: el carácter de las unidades y el número de personas empleadas de las mismas que cuentan con el nivel mínimo necesario de euskera. He aquí la clasificación, por orden de prioridad (prioridad=L):

- Unidades bilingües: L1

Tendrán el nivel de prioridad 1 las unidades bilingües.

- Unidades administrativas de atención al público: L2

Tendrán el nivel de prioridad 2 las unidades administrativas de atención al público cuyo número de personas empleadas con el perfil del puesto acreditado sea del 50% o superior.

- Unidades de carácter social: L3

Tendrán el nivel de prioridad 3 las unidades administrativas de carácter social cuyo número de personas empleadas con el perfil del puesto acreditado sea del 50% o superior.

- Unidades administrativas de carácter general: L4

Tendrán el nivel de prioridad 4 las unidades administrativas de carácter general cuyo número de personas empleadas con el perfil del puesto acreditado sea del 60% o superior.

- Unidades administrativas de carácter singular: L5

Tendrán el nivel de prioridad más bajo las unidades administrativas de carácter singular.

#### 7.3.2 Puestos de trabajo

Además de establecerse las prioridades según el carácter de las unidades, al inicio del V periodo de planificación se ha analizado el carácter de los puestos de trabajo, principalmente con el fin de identificar los de atención al público. Y es que, sea cual sea el nivel lingüístico del personal empleado, dichos puestos de trabajo son estratégicos para garantizar la elección de lengua de la ciudadanía. Por tanto, a lo largo del periodo, y con independencia del carácter de la unidad a la que estén adscritos, los puestos de atención al público tendrán prioridad –teniendo en cuenta las necesidades de las unidades y de su personal empleado – a la hora de establecer microplanas de uso en el caso de quienes tienen acreditado el perfil lingüístico del puesto, y de organizar otro tipo de actuaciones en el caso de quienes no lo hayan acreditado. Aproximadamente un tercio de los puestos de la Diputación son de atención al público.

### 8. CRITERIOS DE USO DE LAS LENGUAS OFICIALES

El Decreto 86/1997 establece que los planes de uso recogerán el tratamiento de las lenguas oficiales en los ámbitos administrativos. Los criterios son imprescindibles para dar los pasos previstos en el plan y alcanzar sus objetivos. Es preciso que todo el personal empleado y todas las unidades sepan cómo, cuándo, con quién... utilizar el euskera.

A la hora de aplicar los criterios que se exponen a continuación, tal como dispone la Norma Foral del Euskera 10/1998 y establece el Manual de Identidad Corporativa, al utilizar ambas lenguas oficiales se dará prioridad al euskera.

Los criterios de uso de las lenguas oficiales se aplicarán, entre otras, en las áreas siguientes, y la responsabilidad de su cumplimiento recae en el departamento o unidad competente en la materia.

### 8.1 RELACIONES COMUNICATIVAS DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

La Diputación Foral de Álava mantiene básicamente, en el desarrollo de sus funciones: con la ciudadanía y los agentes de servicios (empresas, asociaciones, colegios profesionales...), con otras administraciones y dentro de la propia Diputación. Los mencionados tres tipos de relaciones se materializan tanto oralmente como por escrito.

## 8.1.1 Ahozko harremanak

Herritarrekin eta zerbitzugintzako eragileekin (enpresak, elkarteak, elkargoak...)

AFAra etortzen denari edo telefonoz harremanetan jartzen denari, modu esplizituan eta argi adieraziko zaio nahi duen hizkuntza ofiziala aukera dezakeela AFArekiko harremanetan, bide hauetatik:

- AFAko langilearen hasierako agurra elebiduna izango da (Egun on, Buenos días) telefonozko edo aurrez aurreko harremanetan.

- Hizkuntza hautatzeko aukera modu grafikoan adierazteko, txartelak edo horma irudiak erabiliko dira.

Administratuak euskara hautatzen badu, honela jokatu da:

- Euskaraz jarduteko gaitasuna duen langileak hizkuntza horretan jarraituko du.

- Horretarako gai ez den langilea bere administrazio unitateko protokoloari lotuko zaio.

Aldundiko langileek ezin izango diote eskatu administratuari hizkuntza ofizial batean edo bestean jarduteko.

Hartzaile jakinik gabeko ahozko mezuak (erantzungailu automatikoz, megafoniaz... emandakoak) euskaraz eta gaztelaniaz emango dira, beti hurrenkeran horretan, mezu elebiduna izanagatik, argia eta laburra dela ziurtatuz.

Beste administrazio batzuekin

- EAEko administrazioekin edo EAEn egoitza dutenekin, eta euskarak presentzia duen lurraldeetako administrazioekin

Aldundiko langilearen hasierako agurra elebiduna izango da (Egun on, Buenos días). Solaskideak euskaraz erantzuten badu, eta langileak euskaraz jarduteko gaitasuna badu, hizkuntza horretan jarraituko du.

- Egoitza Estatuko beste tokietan duten administrazioekin

Normalean harremana gaztelaniaz izango da.

Aldundi barruan

- Laneko kontuetan

Langileak saiaturiko dira lanarekin lotutako ahozko jardunak euskaraz egiten, plan operatiβοetan aurreikusitako helburuak, baliabideak eta neurriak oinarri hartuta.

- Laneko gai pertsonaletan (nominak, lizentziak eta baimenak, prestakuntza...)

Langileari ziurtatuko zaio kontu pertsonaletako ahozko jardunak nahi duen hizkuntza ofizialean egiteko aukera.

## 8.1.2 Idatzizko harremanak

Idazki elebidunetako hizkuntzen kokapenari dagokionez, dokumentuaren hartzailea edozein dela ere, bi hizkuntza ofizialak batera agertzen direnean, euskara lehenetsiko da hurrenkeran, Euskararen Foru Arauaren 18. artikulua eta Erakundearen Nortasun Liburuaren arabera:

- Testua bi zutabetan: ezkerrekoan euskara, eskuinekoan gaztelania.

- Testua zeinu batez banatua (☞, /,...): ezkerrean euskara, eskuinean gaztelania.

- Testua aurrez aurreko orrialdeetan: eskuinekoetan euskara, ezkerrekoetan gaztelania.

- Testua goian-behean: goian euskara, behean gaztelania.

Herritarrekin, zerbitzugintzako eragileekin eta administrazio hauekin: EAEkoak edo EAEn egoitza dutenak, eta euskarak presentzia duen lurraldeetakoak

Aldundiak erabiltzen dituen inprimakiak bi hizkuntza ofizialean idatzita egongo dira, lehentasuna emanaz bi hizkuntzak batera agertzen diren moldeari.

Hartzaile askori zuzenduak diren edo hartzaile jakin eta zehatzik ez duten administrazio idazkiak, edozein dela euskarria, euskaraz eta gaztelaniaz idatzita egongo dira.

## 8.1.1 Relaciones orales

Con la ciudadanía y agentes de servicios (empresas, asociaciones, colegios profesionales...).

A las personas que acudan a la Diputación o se pongan en contacto telefónico con ella se les manifestará de forma explícita y clara que pueden elegir la lengua oficial que deseen en sus relaciones con la DFA, de la siguiente manera:

- El saludo inicial del personal empleado de la DFA será bilingüe (Egun on, Buenos días) tanto por teléfono como en la relación presencial.

- Se manifestará gráficamente, mediante tarjetas y carteles, la posibilidad de elección de idioma de la persona administrada.

Si la lengua elegida por ella es el euskera, se actuará de la siguiente manera:

- El personal capacitado para hablar en euskera continuará en dicha lengua.

- El personal no capacitado para ello se atenderá al protocolo de su unidad administrativa.

El personal empleado de la Diputación no podrá requerir de la persona administrada el uso de una u otra lengua oficial.

Los mensajes orales sin persona destinataria determinada (por contestador automático, megafonía, etc.) se emitirán en euskera y castellano, siempre en ese orden, asegurándose de que el mensaje, aún siendo bilingüe, sea claro y breve.

Con otras administraciones

- Con las administraciones de la CAV y las que tienen su sede en la CAV, y con las administraciones de los territorios donde tiene presencia el euskera

El saludo inicial del personal de la DFA será bilingüe (Egun on, Buenos días), y si la respuesta se produce en euskera, el personal capacitado para ello continuará en dicha lengua.

- Con las administraciones que tienen su sede en otros lugares del Estado

Normalmente la relación se producirá en castellano.

Dentro de la Diputación

- Temas laborales

El personal empleado procurará utilizar el euskera en las actuaciones orales relacionadas con temas laborales, con base en los objetivos, recursos y medidas previstos en los planes operativos.

- Temas personales en el trabajo (nóminas, licencias y permisos, formación...)

Se garantizará al personal empleado la elección de la lengua oficial que desee en las relaciones orales sobre temas personales.

## 8.1.2 Relaciones escritas

Por lo que respecta a la posición de las lenguas en escritos bilingües, independientemente de la persona destinataria del documento, cuando ambas lenguas oficiales figuren simultáneamente, se dará prioridad en el orden al euskera, a tenor de lo establecido en el artículo 18 de la Norma Foral del Euskera y en el Manual de Identidad Corporativa:

- Texto a dos columnas: izquierda euskera, derecha castellano.

- Texto separado mediante algún signo (☞, /,...): izquierda euskera, derecha castellano.

- Texto en hojas enfrentadas: derecha euskera, izquierda castellano.

- Texto parte superior - parte inferior: parte superior euskera, parte inferior castellano.

Con la ciudadanía, con agentes de servicios y con las siguientes administraciones: las de la CAV y las que tienen su sede en la CAV, y las de los territorios donde tiene presencia el euskera

Los impresos que utilice la Diputación estarán redactados en ambas lenguas oficiales, priorizándose la modalidad en la que figuran simultáneamente ambas lenguas.

Los escritos dirigidos a muchas personas destinatarias o a alguna sin determinar, sea cual sea el soporte utilizado, estarán redactados en euskera y castellano.

Komunikazioa Aldundiak hasten duenean, elebidun bidaliko du idazkia, eta jasotzaileak egiten duen hizkuntza hautuaren arabera jarraituko du harremanarekin.

Komunikazioa AFAtik kanpo hasten denean, komunikazio horretan erabilitako hizkuntzan erantzungo du Aldundiak, hau da:

- Bi hizkuntza ofizialetan jaso bada, dokumentu elebidunak baliatuz.

- Euskaraz jaso bada, euskarazko dokumentuak baliatuz.

- Gaztelaniaz jaso bada, gaztelaniazko dokumentuak baliatuz.

Dokumentuen hizkuntza gorabehera, horiei erantsita bidaltzen diren txosten teknikoak jatorrizko hizkuntzan bidaliko dira.

Egoitza Estatuko beste tokietan duten administrazioekin

Normalean harremana gaztelaniaz izango da.

Aldundi barruan

- Laneko kontuetan

Langileak saiaturiko dira lanarekin lotutako idatzizko jardunak euskaraz egiten, plan operatiboetan aurreikusitako helburuak, baliabideak eta neurriak oinarri hartuta.

- Laneko gai pertsonaletan (nominak, lizentziak eta baimenak, prestakuntza...)

Aldundiak erabiltzen dituen inprimakiak bi hizkuntza ofizialetan idatzita egongo dira, lehentasuna emanez bi hizkuntzak batera agertzen diren moldeari.

Komunikazioa Aldundiak hasten duenean,

- idazkia elebidun bidaliko da edukia behin eta berriro jakinarazten denetako bat bada, edo ez bada ezagutzen jasotzaileak euskaraz dakien ala ez, gaia puntuala izan arren.

- idazkia euskaraz bidaliko da ezaguna bada jasotzaileak euskaraz badakiela, idazkiaren edukia puntuala izanik.

- idazkia gaztelaniaz bidaliko da ezaguna bada jasotzaileak euskaraz ez dakiela, idazkiaren edukia puntuala izanik.

Jasotzaileak idazkia hizkuntza ofizialetako bakar batean idatzita jaso ondoren adierazten badu bestela jaso nahi duela, aurrerantzean berak nahi duen hizkuntzan bidaliko zaio.

Komunikazioa langileak hasten duenean, hark erabilitako hizkuntzan erantzungo dio Aldundiak,

- euskaraz jaso bada, euskarazko dokumentuak baliatuz eta

- gaztelaniaz jaso bada, gaztelaniazko dokumentuak baliatuz.

Dokumentuen hizkuntza gorabehera, horiei erantsita bidaltzen diren txosten teknikoak jatorrizko hizkuntzan bidaliko dira.

### 8.1.3 Tramitazio elektronikoa

Erabiltzaileak aukera izango du euskara edo gaztelania hautatzeko tramitazio elektronikoa egiterakoan.

Tramitazioaren azken jakinarazpena, ebazpena edo ziurtapena testu estandarizatua denean, sistemak aukera emango du ele bietan jasotzeko.

### 8.2 ITZULPEN IRIZPIDEAK

Elebitasunaren beharrei aurre egiteko, normalean, eredu elebidunen bidea erabiliko da.

Gaitasuna duten langileek apurka-apurka euskarazko dokumentuak sortzea bultzatuko da.

Zuzenketaren edo itzulpenaren beharra sortzen denean, Euskara Zerbitzura joko da, horretarako ezarrita dagoen prozeduraren arabera eta bertako irizpideak betez.

Cuando la comunicación sea iniciada por la Diputación, el escrito se enviará bilingüe, y se continuará la relación en la lengua que elija la persona destinataria.

Cuando la comunicación se inicie fuera de la DFA, la Diputación responderá en la lengua utilizada en aquella, es decir:

- Si se ha recibido en ambas lenguas oficiales, se utilizarán documentos bilingües.

- Si se ha recibido en euskera, se utilizarán documentos en euskera.

- Si se ha recibido en castellano, se utilizarán documentos en castellano.

Independientemente de la lengua de los documentos, los informes técnicos que se envíen anexos se enviarán en su lengua original.

Con las administraciones que tienen su sede en otros lugares del Estado

Normalmente la relación se producirá en castellano.

Dentro de la Diputación

- Temas laborales

El personal empleado procurará utilizar el euskera en las actuaciones escritas relacionadas con temas laborales, con base en los objetivos, recursos y medidas previstos en los planes operativos.

- Temas personales en el trabajo (nóminas, licencias y permisos, formación...)

Los impresos que utilice la Diputación estarán redactados en ambas lenguas oficiales, priorizándose la modalidad en la que figuran simultáneamente ambas lenguas.

Cuando la comunicación sea iniciada por la Diputación,

- el escrito se enviará bilingüe si es del tipo de los que se comunican reiteradamente, o en caso de que se desconozca si la persona destinataria sabe o no euskera, aun siendo puntual el contenido del escrito.

- el escrito se enviará en euskera en caso de que se conozca que la persona destinataria sabe euskera, siendo puntual el contenido del escrito.

- el escrito se enviará en castellano en caso de que se conozca que la persona destinataria no sabe euskera, siendo puntual el contenido del escrito.

Si la persona destinataria, una vez recibido el escrito redactado sólo en una de las lenguas oficiales manifiesta su deseo en otro sentido, a partir de ahí se le enviarán los escritos en la lengua de su elección.

Cuando la comunicación la inicie el personal empleado, la Diputación responderá en la lengua utilizada en aquella,

- si se ha recibido en euskera, se utilizarán documentos en euskera, y

- si se ha recibido en castellano, se utilizarán documentos en castellano.

Independientemente de la lengua de los documentos, los informes técnicos que se envíen anexos se enviarán en su lengua original.

### 8.1.3 Tramitación electrónica

Las personas usuarias podrán elegir el euskera o el castellano al realizar la tramitación electrónica.

Cuando la comunicación final, resolución o certificado sea un texto estandarizado, el sistema permitirá su recepción en formato bilingüe.

### 8.2 CRITERIOS DE TRADUCCIÓN

Para hacer frente a las necesidades de bilingüismo, normalmente, se hará uso de modelos bilingües.

Se impulsará la redacción de documentos en euskera, de manera progresiva, por parte del personal empleado con capacidad para ello.

Cuando surja la necesidad de una corrección o traducción, se solicitará al Servicio de Euskera, siguiendo el procedimiento establecido para ello y cumpliendo los criterios del mismo.

### 8.3 HIZKUNTZA PAISAIA

Instalazioetan herritarren zein erakundeko langileen aurrean ikusgai egoten diren informazio euskarriek osatzen dute hizkuntza paisaia.

#### 8.3.1 Errotulazio finkoa

Errotulazio finkoa euskaraz eta gaztelaniaz, zuzen eta egoki, agertuko da.

Aurreko lerroan aipatutakoa betetzeko ardura langintza dagokion unitatearena izango da, Erakunde Nortasunaren Eskuliburuak dioena betez.

Euskara Zerbitzuak egiaztatu beharko du errotuluen euskarazko zuzentasuna eta egokitasuna.

#### 8.3.2 Noizbehinkako oharrak eta errotuluak

Gehienetan paperean idatzita jartzen diren ohar eta errotuluak ere euskaraz eta gaztelaniaz idatzita jarriko dira, hurrenkera horretan. Oharra edo errotulua jartzen duen unitatearen ardura da hori betetzea. Nahi izanez gero, horretarako Euskara Zerbitzuaren laguntza izango dute.

#### 8.3.3 Tresneriaren mezuak

Kafe, edari, janari... makinek, fotokopiagailuek, fitxagailuek eta era guztietako gailu eta tresnek askotan mezu laburrak eta/edo jarraibideak izaten dituzte erabiltzailearentzat. Horiek guztiak bi hizkuntza ofizialetan idatzita azalduko zaizkio erabiltzaileari, elebitasunaren aukera duten tresna edo gailuak egon badaudenean.

#### 8.3.4 Jardueren eta programen izenak

Aldundiaren organo, programa, proiektu eta jardueren izen deskriptiboak elebidunak izango dira.

Euskarazko izenak Euskara Zerbitzuaren proposamena edo onespena beharko du.

Euskarazko izen berezia jartzen denean ere, Euskara Zerbitzuaren onespena beharko da.

#### 8.4 IRAGARKIAK, PUBLIZITATEA ETA KANPAINAK

Iragarki ofizialak, publizitatea eta kanpainak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira.

Sail bakoitza arduratuko da sortu beharko diren testuen egokitasunaz, zuzentasunaz eta jatortasunaz, kalitatezkoak eta ulergarriak izan daitezen.

Kanpainetako mezuek hizkuntzetako bakoitzean adierazgarritasun osoa edukiko dute.

#### 8.5 JENDAURREKO EKITALDIAK

Aldundiak prentsaurrekoak, ekitaldi instituzionalak, mahai inguruak, hitzaldiak, erakusketak, mintegiak, jardunaldi eta biltzarrak, edota ikastaroak antolatzen dituenean, elebitasunaren gutxienekoak betetzen direla ziurtatuko da: publizitatea, megafonia, oharrak, aurkezpenak... euskarari lehentasuna emanez hurrenkera.

Arian-arian ekitaldien edukian ere euskarari lekua egiteko urratsak egingo dira, gizartearen eta, beraz, parte hartzaileen hizkuntza gaitasunak aurrera egin ahala: hizlari elebidunak aurkitzen ahalegindu, aldi bereko itzulpenak...

#### 8.6 ALDUNDIAREN WEBGUNEA ETA INTRANETA

Aldundiaren webguneko eta intraneteko edukiak bi hizkuntza ofizialetan kontsultatzeko moduan egingo dira, edonork modu irekian eskuratzeko informazioa denean.

Aldundiko orrietara sartzean, aukera egongo da euskara, gaztelania eta, hala badagokio, beste hizkuntza batzuk hautatzeko.

Aldundiaren webgunean eta intranetean izapideak egin daitezkeenean, euskaraz edo gaztelaniaz egiteko aukera egongo da.

Sailek webgunera edo webgunetara kanpoan sortutako edukiak barneratzen dituztenean ere, bi hizkuntza ofizialetan kontsultatzeko aukera izango da.

Beste webguneetarako loturak jartzen direnean, eta webgune horiek hizkuntza ofizialen aukera ematen dutenean, ziurtatuko da loturak erabiltzaileak egin duen hizkuntza hautuari dagokion emaitzara eramaten duela.

### 8.3 PAISAJE LINGÜÍSTICO

El paisaje lingüístico lo conforman los soportes informativos que en las instalaciones figuran a la vista de la ciudadanía y del personal de la institución.

#### 8.3.1 Rotulación permanente

La rotulación permanente figurará en euskera y castellano, correcta y adecuadamente.

La responsabilidad de cumplirlo recaerá sobre la unidad responsable del área en cuestión, y lo hará según lo dispuesto en el Manual de Identidad Corporativa.

El correcto y adecuado uso del euskera en los rótulos deberá ser verificado por el Servicio de Euskera.

#### 8.3.2 Avisos y rótulos esporádicos

Los avisos y rótulos esporádicos que normalmente van escritos en papel se colocarán redactados en euskera y castellano, por ese orden. La responsabilidad de cumplirlo corresponderá a la unidad que los coloque, para lo cual podrán contar, si lo desean, con la ayuda del Servicio de Euskera.

#### 8.3.3 Mensajes de aparatos, equipos y maquinaria

Las máquinas de café, bebidas, alimentos..., fotocopiadoras, máquinas de fichar y todo tipo de aparatos y utensilios a menudo contienen mensajes breves o instrucciones para las personas usuarias. Todos esos mensajes se mostrarán a las personas usuarias en las dos lenguas oficiales, siempre y cuando existan aparatos o utensilios que ofrezcan la opción del bilingüismo.

#### 8.3.4 Denominación de actividades y programas

Las denominaciones descriptivas de órganos, programas, proyectos y actividades de la Diputación serán bilingües.

La denominación en euskera precisará de la propuesta o aprobación del Servicio de Euskera.

Se precisará, así mismo, de la aprobación del Servicio de Euskera cuando se trate de un nombre propio.

#### 8.4 ANUNCIOS, PUBLICIDAD Y CAMPAÑAS

Los anuncios oficiales, publicidad y campañas se realizarán en euskera y castellano.

Cada departamento se responsabilizará de la idoneidad, corrección y autenticidad lingüística de los textos, para que sean comprensibles y de calidad.

Los mensajes de las campañas poseerán en cada idioma todo su potencial expresivo.

#### 8.5 ACTOS PÚBLICOS

Cuando la Diputación organice ruedas de prensa, actos institucionales, debates, conferencias, exposiciones, seminarios, jornadas y reuniones o cursos, se garantizará el cumplimiento de los requisitos mínimos de bilingüismo: publicidad, megafonía, notificaciones, presentaciones... dando prioridad en el orden al euskera.

Se irá avanzando paulatinamente a fin de hallar también al euskera su lugar en el contenido de los actos, a medida que avance la capacitación lingüística de la sociedad y por tanto, de los participantes: búsqueda de ponentes bilingües, servicios de traducción simultánea...

#### 8.6 PÁGINA WEB DE LA DIPUTACIÓN E INTRANET

Los contenidos de la página web de la Diputación y de intranet deberán poder ser consultados en las dos lenguas oficiales cuando se trate de información dirigida en abierto a cualquier persona.

En el acceso a las páginas de la Diputación habrá opción de elegir el euskera o el castellano o, en su caso, otras lenguas.

Cuando sea posible realizar trámites a través de Internet o intranet, existirá la opción de realizarlos en euskera o castellano.

Cuando los departamentos incorporen a la página o páginas web contenidos elaborados fuera de la Diputación, existirá la opción de consultarlos en las dos lenguas oficiales.

Cuando se incorporen enlaces a otras páginas web, y en las mismas se dé opción a elegir la lengua oficial, se garantizará que el enlace conduzca al contenido en la opción lingüística de la persona usuaria.

### 8.7 ARGITALPENAK

Arabako Foru Aldundiak euskarazko argitalpenak sustatzen ahalegin berezia egingo du.

Era berean, kultura eta dibulgazio argitalpenak bi hizkuntza ofizialetan egitea bultzatuko du.

Arabako Foru Aldunditik kaleratzen diren arau xedapen, ebazpen ofizial, jakinarazpen eta adierazpen guztiak euskaraz eta gaztelaniaz idatzi beharko dira argitalpen ofizialetarako.

### 8.8 DIRULAGUNTZAK

Diruz lagundutako jardueretan hizkuntzaren erabilera esanguratsua denean, hizkuntza ofizialen erabilera kontuan izango da. Foru Aldundiaren laguntzaren bat jasotzen duten pertsonak, entitateak edo elkarteak diruz lagundutako jardunaren agerpen publiko orean publizitatea bi hizkuntza ofizialetan egin behar dute, eta megafoniaz ematen diren mezuetan ere biak erabili. Batean zein bestean, euskara lehenengo azaldu edo esango da.

Dirulaguntzen eskumenak dituzten organoek neurriak hartuko dituzte idatz zati honetan xedatutakoa bete dadin.

### 8.9 KONTRATAZIO ADMINISTRATIBOAK

Aldundiaren kontratazio bideak bi hizkuntza ofizialetan egingo dira, eta apurka-apurka beharrezko hizkuntza betebeharrak ezarriko zaizkie zerbitzu, obra eta hornidura kontratuen esleipendunei, lehenetsitasun hurrenkera horretan.

### 8.10 LANGILEEN PRESTAKUNTZA OROKORRA

Arabako Foru Aldundiko langileek prestakuntza nahi duten hizkuntza ofizialean jasotzeko eskubidea dute, betiere ikastaroa antolatzeko beharrezko diren interesdunen kopuruak lortzen badira.

Funtzio Publikoko Zuzendaritzak Idazkaritza Teknikoaren bitartez antolatzen du AFAko prestakuntza plana. Prestakuntza plan horretan euskarazko gero eta ikastaro gehiago eskainiko dira, eta, betiere, gutxienez plangintzaldian indarrean dagoen derrigortasun indizearen erdia.

Prestakuntza plan orokorretik kanpo ere, Aldundiko langileentzat euskarazko berriazko eskaintza antolatuz jarraituko da.

### 8.11 TRESNA ETA APLIKAZIO INFORMATIKOAK

Aldundian erabiltzen diren tresna eta aplikazio informatikoak bi hizkuntza ofizialetan lan egiteko prestatuta egon behar dute. Sailak arduratuko dira hori bermatzeaz eta, horrekin batera, hemendik aurrera sortzen diren tresna eta aplikazioetan irizpide hori betetzeaz.

Hasieratik aurreikusiko da aplikazioaren bertsio elebiduna egitea.

Programa informatiko komertzialetan, elebitasunerako aukera ematen dutenak lehenetsiko dira.

### 8.12 ERREGISTROA

Dokumentuak idatzita dauden hizkuntzan edo hizkuntzetan inskribatuko dira Arabako Foru Aldundiko administrazio erregistroetan.

Inskripzioaren itzulpena ziurtatuko da, edozein delarik ere dokumentua inskribatu den hizkuntza ofiziala, erregistroa kontsultatu nahi duen herritarren hizkuntza hautua errespetatzeko.

Erregistroari lotutako aplikazio informatikoetan eremu bat egongo da sartzen edo iriteten den dokumentazioa zein hizkuntzatan dagoen jasotzeko.

## 9. LAN ESPARRUAK ETA HELBURUAK

Taula honetan, V. plangintzaldirako lan esparruak eta helburuak azaltzen dira.

### 8.7 PUBLICACIONES

La Diputación Foral de Álava realizará un esfuerzo y ayuda especial a las publicaciones en euskera.

Así mismo, promocionará la edición bilingüe en sus publicaciones de carácter cultural y divulgativo.

Toda disposición normativa, resolución oficial, notificaciones o comunicados que emanen de la Diputación Foral de Álava deberán estar redactados en euskera y castellano a efectos de publicidad oficial.

### 8.8 SUBVENCIONES

Se tendrá en cuenta el factor de uso de las lenguas oficiales siempre que en la actividad subvencionada el uso de la lengua sea significativo. Las personas, entidades o asociaciones que reciban alguna ayuda de la Diputación Foral deben realizar la publicidad de todas sus intervenciones públicas en los dos idiomas oficiales, así como los mensajes que se comuniquen por megafonía. Tanto en un caso como en otro, el euskera irá en primer lugar.

Los órganos competentes de las subvenciones tienen la responsabilidad de poner los medios para asegurar que se cumpla lo dispuesto en este apartado.

### 8.9 CONTRATACIONES ADMINISTRATIVAS

Las contrataciones de la Diputación se realizarán en las dos lenguas oficiales, y progresivamente se establecerán requisitos lingüísticos a las personas o entidades adjudicatarias de contratos de servicios, contratos de obra y contratos de suministros, en ese orden de prioridad.

### 8.10 FORMACIÓN CONTINUA DEL PERSONAL

El personal de la Diputación Foral de Álava tiene derecho a recibir formación en las dos lenguas oficiales, siempre que se logre el número necesario de personas interesadas para la realización de los cursos.

El plan de formación de la DFA lo elabora la Dirección de Función Pública por medio de su Secretaría Técnica. En ese plan de formación se ofrecerán cada vez más cursos en euskera, y en todo caso, como mínimo, un porcentaje que alcance la mitad del índice de obligado cumplimiento vigente en el periodo de planificación correspondiente.

También fuera del plan general de formación se seguirá organizando una oferta específica en euskera para el personal de la Diputación.

### 8.11 HERRAMIENTAS Y APLICACIONES INFORMÁTICAS

Las aplicaciones y herramientas informáticas que se utilizan en la Diputación deben estar preparadas para poder trabajar con ellas en las dos lenguas oficiales. Cada departamento se ocupará de garantizarlo y, a su vez, de cumplir ese criterio en las herramientas y aplicaciones que se creen en adelante.

Se tendrá prevista desde el inicio la realización de la versión bilingüe de la aplicación.

En el caso de los programas informáticos comerciales, se dará prioridad a los que contengan la opción del bilingüismo.

### 8.12 REGISTRO

Los documentos se inscribirán en los registros administrativos de la Diputación Foral de Álava en la lengua o lenguas en que estén redactados.

Se garantizará la traducción de la inscripción, al margen de la lengua oficial en la que se haya inscrito el documento, para salvaguardar los derechos lingüísticos de la ciudadanía que quiera consultar el registro.

Las aplicaciones informáticas del registro contarán con un campo donde se señalará la lengua o lenguas en la que está redactado el documento recibido o enviado.

## 9. ÁREAS DE ACTUACIÓN Y OBJETIVOS

La tabla siguiente muestra las áreas de actuación y los objetivos del V periodo de planificación:

#### LAN ESPARRUAK

1. Hizkuntza gaitasuna

#### HELBURUAK

1.1 Hizkuntza eskakizunen egiaztatpena areagotzea

1.2 Hizkuntza eskakizuna egiaztatuta duten langileen euskara maila mantentzea eta hobetzea

1.3 Arduradun politikoen eta goi kargudunen euskararen ezagutza hobetzea

LAN ESPARRUAK	HELBURUAK
2. Ahozko komunikazioa	2.1 Kanpo harremanetan euskarazko komunikazioa areagotzea 2.2 Barne harremanetan euskarazko komunikazioa areagotzea
3. Idatzizko komunikazioa	3.1 Kanpo harremanetan euskarazko komunikazioa areagotzea 3.2 Barne harremanetan euskarazko komunikazioa areagotzea 3.3 Euskarazko sortze lana areagotzea
4. Itzulpenak	4.1 Itzulpenen kalitatea hobetzea 4.2 Zuzenketen eta eredu elebidunen erabilera areagotzea
5. Langileen prestakuntza	5.1 Prestakuntza orokorrean ikastaroen euskarazko eskaintza areagotzea 5.2 Prestakuntza berezitan ikastaroen euskarazko eskaintza handitzea
6. Tresna eta aplikazio informatikoak	6. Tresna eta aplikazio informatikoetan euskararen erabilera areagotzea
7. Internet eta intraneta	7.1 Gureneten elebitasuna sendotzea 7.2 alava.net-en elebitasuna sendotzea
8. Argitalpenak	8. Argitalpenetan euskararen presentzia handitzea
9. Hizkuntza paisaia	9.1 Erakundearen hizkuntza paisaian (errotulazio finkoa, noizbehinkako oharrak, tresneria, jardueren eta programen izenak...) euskararen presentzia sendotzea eta areagotzea 9.2 AFaren eraginpeko seinale finko zein aldizkako, kartel, panel, errotulu eta bestelakoetan elebitasuna sendotzea eta areagotzea 9.3 Toponimoen eta bestelako AFaren eremuko bide seinaleetan elebitasuna sendotzea eta areagotzea
10. Iragarkiak, publizitatea eta kanpainak	10. Iragarki, publizitate, kanpaina eta jendaurreko ekitaldietan euskararen presentzia handitzea
11. Dirulaguntzak	11. Dirulaguntzen fase guztietan euskararen presentzia sendotzea
12. Kontratazio administratiboak	12. Kontratazioen fase guztietan euskararen presentzia sendotzea

ÁREAS DE ACTUACIÓN	OBJETIVOS
1. Capacitación lingüística	1.1 Incrementar las acreditación de perfiles lingüísticos 1.2 Mantener y mejorar el nivel de euskera del personal empleado que tiene acreditado el perfil lingüístico 1.3 Mejorar el conocimiento del euskera de las personas con responsabilidad política y altos cargos
2. Comunicación oral	2.1 Incrementar la comunicación en euskera en las relaciones externas 2.2 Incrementar la comunicación en euskera en las relaciones internas
3. Comunicación escrita	3.1 Incrementar la comunicación en euskera en las relaciones externas 3.2 Incrementar la comunicación en euskera en las relaciones internas 3.3 Incrementar la producción original en euskera
4. Traducciones	4.1 Mejorar la calidad de las traducciones 4.2 Incrementar el uso del servicio de correcciones y modelos bilingües
5. Formación del personal empleado	5.1 Incrementar la oferta de cursos en euskera en la formación general 5.2 Incrementar la oferta de cursos en euskera en la formación específica
6. Herramientas y aplicaciones informáticas	6. Incrementar el uso del euskera en las herramientas y aplicaciones informáticas
7. Internet e intranet	7.1 Afianzar el bilingüismo en Gurenet 7.2 Afianzar el bilingüismo en alava.net
8. Publicaciones	8. Incrementar la presencia del euskera en las publicaciones
9. Paisaje lingüístico	9.1 Afianzar e incrementar la presencia del euskera en el paisaje lingüístico de la Institución (rotulación permanente, avisos ocasionales, maquinaria, denominaciones de actividades y programas...) 9.2 Afianzar e incrementar el bilingüismo en la señalización permanente y ocasional, carteles, paneles, rótulos, etc. del ámbito de la Diputación 9.3 Afianzar e incrementar el bilingüismo en la señalización de topónimos etc. del ámbito de la Diputación
10. Anuncios, publicidad y campañas	10. Incrementar la presencia del euskera en los anuncios, publicidad, campañas y actos públicos
11. Subvenciones	11. Afianzar la presencia del euskera en todas las fases de las subvenciones
12. Contrataciones administrativas	12. Afianzar la presencia del euskera en todas las fases de las contrataciones administrativas

## 10. PLANAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Aldundiko V. plangintzaldiko erabilera planaren jarraipenak eta ebaluazioak egitura hau izango dute:

Bost urteko plana: Planaren balorazioa plangintzaldiaren erdian (2015ean) eta bukaeran (2017an) egingo da, 86/1997 Dekretuan agindutakoa betez, eta horren berri emango zaie Aldundiko arduradun politikoei, goi kargudunei eta arduradun teknikoiei.

Plan operatiboak: Plan operatiboaren jarraipena eta balorazioa Euskara Zerbitzuak egingo du, neurriak aurrera eramateko izendatu diren solaskideekin eta planetan parte hartuko duten langileekin batera. Elkarlan horretan lehenengo plan operatiboaren (2014-15) helburuak baloratuko dira, neurriak egokitu eta/edo zuzentzeko proposamenak egingo dira, hurrengo (2016-17) diseinatzeko.

Langileen ordezkariak osatutako Euskara Batzordeari ere emango zaio aipatutako planen informazioa.

## 11. BALIABIDEAK

Giza baliabideak eta baliabide materialak ezinbesteko tresnak dira Aldundiaren Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana gauzatzeko.

## 10. SEGUIMIENTO Y EVALUACIÓN DEL PLAN

El seguimiento y la evaluación del plan de uso correspondiente al V periodo de planificación tendrá la siguiente estructura:

Plan quinquenal: La valoración del plan se realizará a mediados del periodo de planificación (2015) y al final del mismo (2017), en cumplimiento de lo dispuesto en el Decreto 86/1997, y se dará cuenta de las mismas a las personas con responsabilidad política, altos cargos y personas con responsabilidad técnica de la Diputación.

Planes operativos: El seguimiento y la evaluación de los planes operativos lo realizará el Servicio de Euskera, junto con las personas interlocutoras que se designen para llevar a cabo las medidas y el personal empleado que participe en ellos. En dicha labor conjunta se valorarán los objetivos del primer plan operativo (2014-15), se adaptarán las medidas y se propondrán medidas correctoras de cara al diseño del siguiente (2016-17).

Se informará también sobre los planes citados a la Comisión de Euskera conformada con los representantes del personal empleado.

## 11. RECURSOS

Los recursos humanos y materiales son herramientas imprescindibles para el desarrollo del Plan de Normalización del Uso del Euskera en la Diputación.

Giza baliabideei dagokienez, Euskara Zerbitzuko normalizazio taldeak sail guztietako solaskideekin batera lan egingo du plangintzaldi osoan zehar.

Bestalde, sailek eta zuzendaritzek beren aurrekontuetan behar diren partidak sortu edo egokituko dituzte, plan operatiboetan jasotako neurriak aurrera eramateko.

Euskara Zerbitzuak ere, euskalduntzea, ALET programa, itzulpenak eta bestelakoak aurrera eramateko baliabideak izango ditu? eta hartarako behar diren kontratuak egingo ditu? IVAPekiko hitzarmenaren bidez eskuratzen dituen gain.

## 12. AFA-REN ERAKUNDE AUTONOMOAK

Arabako Foru Aldundiak bi erakunde autonomo ditu: Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea eta Gazteriaren Foru Erakundea. Horietako bakoitzak, 86/1997 Dekretuaren 2 d) artikuluan ezarritakoaren arabera, beren Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planak egin eta onartzen dituzte.

## 13. SOZIETATE PUBLIKOAK

AFAREN sozietate publikoek dituzten hizkuntza betebeharrak 86/1997 Dekretuaren laugarren xedapen gehigarrian daude zehazturik:

Euskal Autonomia Elkarteke herri-administrazioei lotuta egonik zerbitzu publikoak eskaintzen dituzten elkarte publiko zein zuzenbide pribatuko erakunde publikoek, nahita nahiez euskara eta gaztelaniaren erabilera bermatu beharko dute herritarrekin harreman zuzenak dituzten zerbitzuetan.

Helburu hori betetzeko, elkarte publiko zein zuzenbide pribatuko erakunde publiko horiek, Dekretuak ezarritako irizpideak erabilia, erakundeetako bakoitzean ezarri beharreko helburuak zein izango diren aztertu eta helburu horiek benetan bete daitezela hartu beharreko neurriak hartuko dituzte.

Aipaturikoak gauzatzeko, AFAREN sozietate publikoek Foru Aldundiak zerbitzua bere baliabideez ematerakoan bete behar dituen hizkuntza baldintza berberak beteko dituzte, eta horretarako neurriak zehaztuko.

3.2 puntuan dago zehaztuta zer sozietate publiko dauden eta zer saili atxikita dauden.

## 14. KOMUNIKAZIOA

Berriarazo komunikazio eta informazio lana egingo da Aldundiko kide guztiek plana ezagutu dezaten eta plana gauzatzeraokan parte senti daitezen.

Mezu nagusia: administrazioak hizkuntza aukera bermatu behar die herritarrei, beren eskubidea baita. Horretarako, langile guztiak, izan elebidunak edo elebakarrak, planaren parte inportante dira; hizkuntza gaitasuna dutenek, hala dagokionean, funtzio komunikatiboa euskaraz beteko dute, eta ez dutenek, dagokien ardua bere gain hartuko dute funtzio komunikatiboa euskaraz bidera dadin.

Komunikazio prozesu horretan ezinbestekoa da arduradunen inplikazioa; horretarako, planaren komunikazio eta informazio lana erraztuko dute, eta hizkuntza irizpideak bete eta betearaziko dituzte, planaren oinarria baitira.

Por lo que respecta a los recursos humanos, el grupo de normalización del Servicio de Euskera trabajará durante todo el período de planificación de manera conjunta con las personas interlocutoras de todos los departamentos.

Por otra parte, los departamentos y direcciones habilitarán o adecuarán en sus presupuestos las partidas necesarias para llevar a cabo las medidas contempladas en los planes operativos.

El Servicio de Euskera dispondrá de los recursos económicos necesarios para el desarrollo de la euskaldunización, del programa ALET, traducciones etc. ¿para lo cual llevará a cabo las contrataciones oportunas? además de los que disfruta mediante el convenio suscrito con el IVAP.

## 12. ORGANISMOS AUTÓNOMOS DE LA DFA

La Diputación Foral de Álava cuenta con dos organismos autónomos: el Instituto Foral de Bienestar Social y el Instituto Foral de la Juventud. A tenor de lo establecido en el artículo 2 d) del Decreto 86/1997, ambos elaboran y aprueban sus Planes de Normalización del Uso del Euskera.

## 13. SOCIEDADES PÚBLICAS

Las obligaciones lingüísticas de las sociedades públicas de la DFA están establecidas en la disposición adicional cuarta del Decreto 86/1997:

Las sociedades públicas y los entes públicos de derecho privado dependientes de las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi que presten servicios públicos vendrán obligados a garantizar la utilización del euskera y del castellano en aquellos servicios que conlleven una relación directa con el usuario.

Para ello, dichas sociedades públicas y entes públicos de derecho privado, aplicando los criterios establecidos por el citado Decreto, estudiarán los objetivos lingüísticos que hubieran de ser de aplicación en cada uno de ellos, y adoptarán las medidas tendentes a su efectivo cumplimiento.

A la hora de hacer efectivos dichos preceptos, las sociedades públicas de la DFA cumplirán con las mismas obligaciones lingüísticas que asume la DFA cuando oferta un servicio por sus propios medios, y determinarán las medidas que aplicarán a tal fin.

La relación de sociedades públicas y su adscripción a los departamentos correspondientes figura en el punto 3.2.

## 14. COMUNICACIÓN

Se realizará una labor específica de comunicación e información a fin de que todos los miembros de la Diputación conozcan el plan y se sientan participantes en su materialización.

Mensaje principal: la administración debe garantizar a la ciudadanía la elección de idioma, puesto que es su derecho. Para ello, todas las personas empleadas, sean o no bilingües, son parte importante del plan, de tal manera que quienes tienen capacidad lingüística en euskera cumplan, en su caso, la función comunicativa en euskera, y quienes carezcan de dicha capacitación asuman la tarea que les corresponde para que se pueda cumplir la función comunicativa en euskera.

En dicho proceso de comunicación resulta imprescindible la implicación de las y los responsables, que facilitarán la labor de comunicación e información, y cumplirán y harán cumplir los criterios lingüísticos, que son la base del plan.

### Foru Aginduak

#### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

6302

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren 765/2013 FORU AGINDUA, abenduaren 11koa, balio erantsiaren gaineko zergaren 390 eta 391 ereduak onartzen dituen.

Balio erantsiaren gaineko zergaren Foru Dekretuak 164. artikuluan, lehenengo paragrafoan, 6. zenbakian, xedatzen du subjektu

### Órdenes Forales

#### DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

6302

ORDEN FORAL 765/2013, del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos de 11 de diciembre, de aprobación de los Modelos 390 y 391 del Impuesto sobre el Valor Añadido.

El artículo 164, apartado Uno, número 6.º, del Decreto Foral Normativo 12/1993, de 19 de enero, del Impuesto sobre el Valor